



## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Jaiki eta zoaz; zeure sinesmenak salbatu zaitu”

2022ko urriaren 9a  
Urteko 28. igandea (C)

### Lukas 17, 11-19.

Jerusalemera bidean, Samaria eta Galilean barrena zihoan Jesus. Herri batean sartzerakoan, hamar legendun atera zitzaizkion bidera. Urruti gelditurik, deiadarka esan zioten: Jesus, Maisu, erruki zakizkigu!

Jesusek, ikustean, esan zien: Joan eta azaldu apaizengana.

Bidean zihoazela, garbi gelditu ziren. Haietako bat, sendatua zegoela oharturik, Jainkoa deiadarka goratuz itzuli eta Jesusen oinetara ahozpezen erori zen, eskerrak emanez; samariarra zen bera. Jesusek esan zuen: “Ez ote dira hamarrak garbi gelditu? Non dira beste bederatziak? Ez al da izan atzerritar hau besterik Jainkoa goratzera etortzeko?”

Gero, esan zion: “Jaiki eta zoaz; zeure sinesmenak salbatu zaitu”.

“Jesusek esan zuen: “Ez ote dira hamarrak garbi gelditu? Non dira beste bederatziak?  
Ez al da izan atzerritar hau besterik Jainkoa goratzera etortzeko?”

## SENDATZEA

*Jose Antonio Pagola*

Ezaguna da pasadizoa. Jesusek hamar lepradun sendatu ditu eta apaizengana bidali, beren familia itzultzeko baimena eman diezaieten. Horretan amaitzen ahal zen kontakizuna. Baina, ez; haietako bakoitzaren erreakzioa nabarmendu nahi izan du ebanjelariak.

Behin sendatuz gero, lepradunak ezkutatu egin dira eszenatik. Ez dakigu ezer haietaz. Ematen du ez dela ezer gertatu haien bizitzan. Halaz guztiz, haietako batek «*sendatua ikusi du bere burua*» eta konturatu da ezen erregalu handi bat egin diotela. Eta Jainkoa sumatu du sendatze haren jatorrian. Bihotz-handi, itzuli egin da «*Jainkoa oihuka goratuz*» eta «*Jesusi eskerrak emanez*».

Eskuarki, komentariogileek esker emate bezala interpretatu izan dute haren erreakzioa: beste bederatziak esker txarreko dira; itzuli dena bakarrik da esker oneko. Egia esan, badirudi horixe iradokitzen duela kontakizunak. Halaz guztiz, Jesus ez da mintzo esker onaz. Dio ezen samariarra «*Jainkoa aintzatzer*» itzuli dela. Eta Jainkoa aintzatzea eskerrak ematea baino zerbait gehiago da.

Pertsona bakoitzaren historia txikian, gaixotasunaren, oinazearen eta atsekabearen proba bizi izan duenaren historian, esperientzia pribilegiatua da sendatu izana, Jainkoa aintzatzeko gure izatearen Salbatzaile den aldetik. Hau dio Lyongo Ireneo santuaren esapide sonatu batek: «Hona zerk duen aintzatzen Jainkoa: bizia bete-betean duen gizakia». Sendatua izan den lepradunaren gorputz hori Jainkoaren aintza abesten duen gorputza da.

Dena dakigula uste izaten dugu geure organismoaren funtzionamenduz; halere, gaixotasun larri batetik norbait sendaturik ikusteak harrigarri izaten jarraitzen du. Beti da «misterio» esperientzatzea nola oneratzten den gure bizitza, nola indarberritzen garen, nola handitzen diren gure konfiantza eta gure askatasuna.

Sendatzea bezain errotiko eta oinarrizko esperientzia gutxi bizi izango ditugu, gaitzaren gaineko eta herio-mehatxuaren gaineko biziaren garaipena esperientzatu ahal izateko. Horregatik, Jainkoari, gure izatearen oinarri bezala eta bizi berriaren jatorri bezala datorkigun Jainkoari modu berrian ongi etorri egiteko ahalbidea eskaintzen zaigu sendatuak garelako sumatzean.

Medikuntza modernoak jende askori ahalbidetzen dio gaur egun sendatze-prozesua bizi ahal izateko zoria, iraganean baino sarriago. Esker oneko izan behar genuke sendagile horiekiko, baina sendatu zarela sumatzea, aldi berean, Jainkoarekin harreman berriak izateko aukera eta estimulu ere izan daiteke. Ez-axolarik federa igaro gitezke, ukatetik ongi etorri egitera, zalantzatik konfiantzara, ikaratik maitasunera.

Jainkoari eginiko ongi etorri honek senda gaitzake kalte egiten diguten ikaratik, hutsunetik, zaurietatik. Errotzen ahal gaitu bizitzan era osasungarriagoan eta askeagoan. Sendatzen ahal gaitu oso-osorik.